

AL-QAEDA

Bin Laden hil zutenetik, berak sortutako sareak bide berriak zabaldu ditu

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Al Mukalla hiria Yemengo hegoaldean dago, Aden golkoan, eta Hadramawt probintziako hiriburua da. 200.000 biztanle inguru ditu. Bertako herritarrek urtebete egin dute Al-Qaedako miliziano-en aginduak betetzen, bestela hil egingo zituztela jakinda.

Amesgaiztoa iazko apirilaren 2an hasi zitzairen. AQAP Arabiar Penintsulako Al-Qaedak bertako espetxea bereganatu zuen egun hartan, ehunka preso aske uzteko, erakundeko bi buruzagi ohi barne. Hiriko banketxe bati egin zioten eraso, dirutza eramanez. Gainera, Al Mukallako jauregi presidentziala ere bereganatu zuten. Gaztelaniazko Wikipediak aste honetan bertan oraindik esaten duenez, AQAPekoen hiriburu bihurtuta zegoen eta emirerria eratu nahi zuten Hadramawten. Ingelesezkot bertsiok informazio gaurkotuagoa eskaintzen du, Al-Qaedakoek osapa egin baitzuten apirilean hiritik, Yemengo Armadaren erasot aldi baten eraginez.

«Al-Qaedako borrokalariek atxilotzeko edo beren indarretan esku hartzera behartzeko arriskuak beldurtuta eduki gaituzte», esplikatu zien kazetariei Mujahid al-Qaiqi 22 urteko gazteak. Jihadisten tokia Yemengo segurtasun indarrek hartu dute orain eta guztiek diote hiria erabat aldatu dela asteotan.

GERRA TESTUINGURUA

Al-Qaedak alde batetik eta ISIS Estatu Islamikoak bestetik gerra testuinguruak eskaintzen dien baldintzak baliatu dituzte lurralde gehiago bereganatzeko. Al Mukallan, Hadi presidentearen indarren eta huthi matxinoen arteko borrokek eragindako kaosa baliatu zuten hiria beren mendean hartu eta bertako ohi-turak erabat aldatzen hasteko.

Herritarrek kontatu dutena ISISek bereganatutako Irak edo Siriako herrietakoek kontatzen dutenaren tankerakoa da.

Jihadistek Erlijio Polizia sortu zuten, leku publikoetan gizonak eta emakumeak elkarrekin egon ez zitezen. «Emakume fededu-

nak, zuen gorputz garbiak estali, disimulurik gabeko begiradek eraso ez ditzaten», irakur daiteke oraindik jihadistek hirian ipinitako txartel batean.

Al-Qaedak hedatutako Poli-ziak kalean ikusten zuen edozein bikote gelditzen zuen, familiakoak zirela baieztatzeko. Bestela... Saleh Naserrek kontatu

du urtarilaren 4an emakume bat harrika hil zutela, adulterioa leporatu ondoren.

MUSIKA, DEBEKATUTA

Abestea eta dantza egitea debekatu zuten. Baita ezkontzatan ere, nahiz eta Al Mukallan musikak beti sekulako garrantzia izan duen. «Egun batean nire

dendara etorri ziren eta nituen zinema eta musika grabazio guztiak ezabatzeko agindu zitaditen», adierazi die kazetariei Isa Ghaleb musika denda bateko jabeak. «Grabazio horien ordezt, Al-Qaedak Afganistanen, Iraken eta Sirian egindako operazio militarren bideoak eskaintzeko esan zitaditen».

Islamak idolatria debekatzen duela esanez, hilobiak eta mausoleoak suntsitu zituzten Al-Qaedako jihadistek. Aldi berean, ur eta argindar hornikuntza bermatzen arrakastaz saiatu ziren jihadistak, Abdel Jabar Bajbir ikasleak onartu duenez.

Al Mukallatik ihes egitean argitara eman zuten agiri batean esplikatu zuten hiriaren suntsiketari saihesteagatik hartu zutela erabakia, eta bertan egon diren bitartean zegoen «segurtasunari» esker «ekonomiak eta merkataritzak gora» egin zutela.

Osama Bin Laden Al-Qaeda sarearen sortzailea 2011ko maiatzaren 2an hil zuten estatubatuarrek Pakistanen.
AFP



Horrelako argudioek sekulako garrantzia dute egungo yemen-darrentzat, gerra besterik ezagutu ez duten horientzat. Herritar batzuek esan dute Al-Qaedak alde egin eta Gobernua itzuli dela-eta, zerbitzu publikoek behe-
ra egingo dutelakoan daudela.

Al Mukalla Al-Qaedakoek erai-ki nahi duten gizartearen isla izan daiteke; Osama Bin Laden hil ondorengo Al-Qaedak erakutsi nahi duen ereduaren isla.

2011z geroztik, Bin Ladenek sortu zuen sareak eraso ikusgarriak egin izan ditu, esaterako, Pariseko “Charlie Hebdo” astekari satirikoaren aurkakoa. Aldi berean, epe luzera begiratzen du, ISISekoen indartzeari eta estatubatuarren bonbardaketei aurre egin nahian.

ZEIN TALDE NAGUSITUKO DA?

Adituak ez dira bat etortzen. Batzuek diote Al-Qaeda atzean utzi dutela dagoeneko ISISekoek, eta une honetan gainbeheran dagoela Zawahiriren sarea.

Beste batzuek, berriz, Estatu Islamikoak protagonismoa ken-

du diola sareari, baina bere epe luzeko estrategiari esker ISIS gailenduko duela azkenean, Abu Bakr al-Baghdadik sortutako estatu itxurako erakundeak sekulako presioa baitu Sirian eta Iraken eratu duen Kalifatoan.

Al-Qaedak astindu izugarria eman zion munduari 2001eko irailaren 11n, lau bidaiari hegazkin bahitu eta New Yorken eta Washingtonen eraso ikusgarriak egin zituenean (laugarren hegazkina Pennsylvanian bota zuten estatubatuarrek, Etxe Zuria erasotzera zihoalakoan). Ia 3.000 hildako. Aitzakiarik onena AEBetako Armadak Ekialde Hurbilari su eman ziezaion.

Baina Al-Qaedaren sua itzaltzen hasi zen, horrela zirudien behintzat, 2011ko maiatzaren 2an Pakistanen estatubatuarrek Bin Laden bera hil zutenean. Gainera, Al-Baghdadik Irakeko Al-Qaeda utzi eta Estatu Islami-koa (Kalifatoa deitzen diote) sortu zuen 2014an, oso erraz bereganatu zituen Irakeko eta Siriako eremu zabaletan. Geroztik badirudi ISIS Estatu Islami-



Ayman al-Zawahiri egiptoarra da Al-Qaeda sareko egungo burua. AFP

**ISLAMIAR
MAGREBEKO
AL-QAEDA**

Aljerian indar islamistek **hautestontzietan** garaipena lortu zuten baina galtzaileek ez zuten emaitza onartu eta jihadismoaren bidea hartu zuten talde horietan zeuden batzuek. Hortik sortu zen **AQMI** Islamiar Magrebeko Al-Qaeda, **2007an**. Mendebaldeko herritar-
rrak bahitu izan ditu, erasoak egiteaz gain. Mojtar Belmojtar aljeriarren **Al-Mourabitoun** taldeak iaz adierazi zuen Al-Qaedarekin bat egiten duela.

**INDIAR
AZPIKONTINENTEKO
AL-QAEDA**

Al-Qaedak **2014ko irailean** iragarri zuen **AQIS** Indiar Azpikontinenteko Al-Qaedaren sorrera. **Indian, Afganistanen, Pakistanen, Bangladeshen eta Birmanian** du indarra: **600 borrokalari** inguru ditu. Pakistango eta Afganistango **talibanekin lotura** du eta iaz Bangladeshen makina bat **blogari** hil zituen, erlijioaren aurka aritzeagatik. **Homosexualak** ere jomugan ditu.

**SIRIAKO
AL-NUSRA
FRONTEA**


Siriako Al-Nusra Frontea **2012ko urtarrilean** sortu zen, **Baxar al-Assad** diktadorearen aurkako matxinadak lehen urtea bete gabe zuela. Adituek diote ISIS taldearen ondoren, Siriako indar jihadistarik indartsuena dela. Bi taldeak elkarren aurka borrokan ari dira. Adituen kalkuluen arabera, **8.000 borrokalari** ditu. **Idleb** eta **Alepo** probintzietan du indarra. Azken su-etenetik kanpo geratu zen.

**SOMALIAKO
AL-SHABAAB
TALDEA**

Somaliako Al-Shabaab taldea herrialde hartako **auzitegi islamiarren** errautsetatik sortu zen. Al-Qaeda sarearekin egin zuten bat **2014an**. 2016an bere jarduera armatuak gora egin du. Ahmed Umar Abu Ubaik zuzentzen du **9.000 borrokalari** dituen taldea. **Muqdisho** Somaliako hiriburua bere mendean eduki zuen, **Afrikar Batasuneko tropek** bidali zuten arte. **Kenyan** ere eraso izugarriak egin ditu.

**ARABIAR
PENINTSULAKO
AL-QAEDA**

Al-Qaedak **Yemenen eta Saudi Arabian** zituen taldeek bat egitean sortu zen **AQPA** Arabiar Penintsulako Al-Qaeda, **2009an** (ordura arteko AEBen aurkako eraso ikusgarrienetako batzuk beraiek egin zituzten). Arabiar Udaberriarekin batera Yemenen egin ziren protestaldien harira (Gobernua xiiten aurka) asko indartu zen. Pariseko **«Charlie Hebdo»** astekariaren aurkako eraso bere gain hartu zuen.



Abu Bakr al-Baghdadi irakiarrak 2014an Al-Qaeda utzi eta ISIS Estatu Islamikoa sortu zuen. AFP

koa jihadismoaren eredu arrakastatsua dela, eta Al-Qaeda, al-diz, porrotaren irudia.

Propagandak, jakina, sekulako garrantzia izan zuen bilakaera horretan. Jean-Pierre Filiu frantses adituak uste du ISISekoek sortutako «gerra mediatikorako makinak» sekulako arrakasta izan zuela, eta Al-Qaedaren propaganda ia erabat ezkutatzea lortu zuela. ISISekoen basakeriek eragin zuten Ayman Zawahiri Al-Qaedako buru berria erabat itzaltzea.

Filiuk egiten duen irakurketak Al-Qaedarekin herrialde ezberdinetan bat egin duten taldeak kontuan hartzen ditu. Berak dio Afrikako Sahel eskualdea alde batera utzita, gainerako leku guztietan Al-Qaeda ahuldu egin dela. «Atzera egin izana Zawahiriren erabakien ondorio da. Berak arabiar herrialdeetan sortutako giro iraultzailea baliatu nahi zuen, ISISekoek hasiera-hasieratik iraultzen aurkako jarra hartu zuten bitartean. Horrek Sirian eta Yemenen diktadoreen

ISISek erakusten ez duen «pragmatismoa» du Al-Qaedak, eta, esaterako, «musulmanak ez hiltzen saiatzen da, betiere lekuan lekuko sentsibiltatea kontuan hartuta»

William McCants Brookings Institutioko adituak nabarmentzen du Siriako Al-Nusra Frontearen jarduera, ISISekoek lurralde asko kendu ondoren, egoera iraultzen hasia delako

laguntza baliatzeko aukera eman die, eta Libian, berriz, Gaddafi koronelaren jarraitzaile batzuk bereganatu ditu».

William McCants Washington Brookings Institution erakundeko adituak nabarmentzen du Siriako Al-Nusra Frontearen jarduera, ISISekoek lurralde asko kendu ondoren, egoera iraultzen hasia delako.

YEMEN ETA AFRIKA

McCantsek Yemen ere ekarri du gogora. Bertan AQPAK eremu zabalak ditu bere mende, nahiz eta azken asteotan leku batzuetatik (Al Mukalla hiritik, kasu) ihes egin behar izan duen. Gainera, milaka borrokalari ditu Yemenen, eta ISISek ehunka baino ez. Estatubatuarraren arabera, Zawahirik ezarritako ildoaren ondorio da Yemenen gertatzen ari dena: alde batetik lurraldeak bereganatzen ditu, bestetik Mendebaldeko interesen aurka-ko erasoak egiten dituen bitar-

tean. AQMI Islamiar Magrebeko Al-Qaedak azken hilabeteotan hotel eta jatetxeen aurkako eraso ugari egin ditu, dozenaka turista atzerritar hilez.

Soufan Group analisi institutuak martxoan egin zuen txostenaren arabera, Al-Qaedak batasun irudia eman nahi du Afrikako Mendebaldeko eraso horiekin, «zatiketa kaltegarrien ondoren», era horretan ISISekoen indarra ahulduko duelakoan. Bruselan egoitza duen ICG International Crisis Groupek uste du Al-Qaeda egoera berrira egokitu dela, eta bere adar batzuk indartsuak direla «lekuan lekuko matxinadetan esku hartzen dutelako». ISISek erakusten ez duen «pragmatismoa» du Al-Qaedak eta, esaterako, «musulmanak ez hiltzen saiatzen da, betiere lekuan lekuko sentsibiltatea kontuan hartuta». ISISek Yemenen xiiten meskitek eraso egin zienean, sareak gaitzetsi egin zituen atentatu horiek.

2011 Maiatzaren 2an hil zuten Osama Bin Laden (Pakistango orduaren arabera), eta **irailaren 30ean** AEBetako Armadako **drone** batek Anuar al-Aulaqi (yemendarra) Arabiar Penintsulako Al-Qaedako buruetako bat hil zuen. Egun haietan, **Pakistanen**, Al-Qaedako beste kide garrantzitsu batzuk hil zituzten estatubatuarrak. Garai hartan diru gutxirekin zebilen sarea, baina nahikoa **Afrikan eta Ekialde Hurbilean** zituen taldeei erasoak egiteko agintzeko.

2012 Al-Qaedak 2001eko irailaren 11n egin zuen atentatu ikaragarriaren 11.

urteurrenean, sarearekin lotura zuten talde batzuek AEBek Libiako **Bengasi hirian** zuten kontsulatuari eraso egin zioten (lau hildako, enbaxadorea barne). Handik hiru egunetara, arabiar herrialdeetan pelikula baten aurka protestak ari zirela, AEBek **Tunisian zuten enbaxadari** egin zioten eraso. Irailaren 15ean Al-Qaedak AEBen interesen aurkako erasoekin segitzeko eskatu zuen.

2013 Urtarrilaren 11n frantses Estatuak eta bere aliatuek Islamiar Magrebeko Al-Qaeda kanporatu zuten

Malitik. Hilaren 16an, mendekua: Aljeriako gas instalazioei eraso egin zien sareak (69 hildako). 2014tik aurrera Parisek Mauritania, Mali, Burkina Faso, Niger eta Txaden laguntza izan du Al-Qaedaren aurkako borrokan. Hala ere, AQMIk eraso gehiago egin ditu: 2015ean Bamako Maliko hiriburuan (20 hildako) eta aurten Burkina Fason (30 hildako hiriburuan) eta Boli Kostan (19). Sirian, berriz, Al-Nusra Fronteak bat egiten du Al-Qaedarekin.

2014 Irakeko Al-Qaedako makina bat kidek sarea utzi eta ISIS Estatu Islamikoa sortu zuten. Ekainean, Siriako eta Irakeko

eremu zabalak bereganatuta, Kalifatoa aldarrikatu zuten. ISIS eta Al-Qaeda elkarri mokoka hasi ziren jarraian. Sareak jakinarazi zuen indiar azpikontinentean beste filial bat sortua zuela.

2015 Urtarrilaren 7an AQPAK bere gain hartu zuen "Charlie Hebdo" astekariaren aurkako eraso. Apirilean arabiar penintsulako jihadistek Yemengo Mukala hiria bereganatu zuten (urtebete egin zuten bertan). AEBek AQPAko 71 borrokalari hil zituen 2016ko martxoan. Zawahirik ez zuen bat egin nahi izan ISISekin, nahiz eta batasuna eskatu.

AEB-EI LAGUNDU ZIEN MEDIKUAREN DRAMA

Osama Bin Laden Al-Qaeda sareko buruaren aurkako operazioak makina bat biktima utzi ditu bidean. Bakarren bat nabarmentzekotan, Shakil Afridi medikua aipatu behar da, bere laguntzarik gabe estatubatuarrek ez baitzuten lortuko Bin Laden harrapatzea. Une honetan preso daukate Pakistanen eta kartzelan bertan ere erabat beldurtuta bizi da; bere lehenengo abokatuak herrialdetik ihes egitea erabaki zuen, baina bisita bat egitera itzuli zenean erail egin zuten; eta oraingoak, Qamar Nadeemek, bi urte daramatza bezeroarekin hitz egiteko aukerarik gabe. Estatubatuarrei sekulako mesedea egin zien gizona inolako babesik gabe dago. «Erromak ez die traidoreei ordaintzen», esan omen zien orain 22 mende Kinto Servilio Zepion kontsulak Viriato lusitaniar tribuaren buruzagi nagusia hil zuten traidoreei. Hori gertatu ote zaio Afridi medikuari?

Afridi doktoreak C hepatitisaren aurkako txertaketa kanpaina faltsu bat antolatu zuen AEBen ustez Osama Bin Laden bizi zen eskualdean, biztanleen DNA laginak lortzeko asmoarekin. Medikua berak esan izan du estatubatuarrek ez ziotela jakinarazi noren bila zebiltzan. Lagin horiei esker Bin Laden Abbottabaden bizi zela baieztatu zutenean, Armadako indar bereziek hil zuten jihadistak, Washingtonen bertsioaren arabera. CIA inteligentzia agentziak ihes egiteko eskatu zionean, berak ezetz erantzun omen zien. Pakistango agintariek iraintzat hartu zuten operazioa. Medikua atxilotu eta muturreko militanteekin lotura zuela leporatuta (sinesgarritasunik ez duen akusazioa), epaitu egin zuten: 33 urteko kartzela zigorra. Gerora 23 urtera murriztu zioten zigorra.

BATA ZURIA JANTZITA DAGOENA, ETSAITZAT

Shakil Afridi medikuari elkarrizketa bakarra egin zaio preso dagoenetik. 2012an egin zion AEBetako Fox News telebista kateak. Orduan onartu zuen operazioarekin zerikusirik izan zuela, handik pixka batera Leon Panetta AEBetako Defentsa idazkari ohiak baieztatuko zuena.

Nola jarri ziren harremanetan CIAko espioiak medikuarekin? Pakistango hedabide batzuek esan izan dute Save The Children gobernuz kanpoko erakundeko arduradun batzuek (medikuak horiekin egiten zuen lan) bitartekari lanak egin zituztela. Erakundeak berak ezetz dio, jakina! Edonola ere, eskualde hartan eta ingurukoetan ere, bata zuria jantzita ageri den edonor etsaitzat hartzen dute gaur egun eta prebentzio kanpainak aurrera ateratzea ezinezko bihurtu da, milaka lagunak kalterako.

Shakil Afridiren abokatuak ez dute ezer lortzen, prozedura judiziala indar ikaragarri batek oztopatuko balu bezala. 2014an eman zitzaion hasiera teorikoa apelazio epaiketari, baina beti sortzen da aitzakiaren bat beste baterako uzteko. Horregatik giza eskubideen aldeko talde batzuek kasua salatu izan dute, agintariei gardentasuna eskatzeaz gain. «Egurra ematen diote medikuari, beren burua garbitzeko», adierazi du Zar Ali Khan Afridi ekintzaileak (ez da medikuaren familiakoa, abizen bera izan arren). Afridik ia ez du bisitarik izaten, nahiz eta Peshawarreko auzitegiak anai-arreben bisitak baimenduta dauzkan. Abokatuak dio AEBen presiorik gabe, bezeroaren egoera ez dela aldatuko. 2012an AEBetako Senatuak Islamabad estutu zuen, laguntzak murriztuz, baina Washingtonek Afganistango talibanekin egin beharreko negoziazioei eman zien lehentasuna, eta medikua erabat bakartuta utzi du.



Goiko irudian, Shakil Afridi medikua etxekoekin (ezkerretik hasita, hirugarrena). Behekoan, Qamar Nadeem bere bigarren abokatuak, lehena hil egin zuten-eta.
SS MIRZA | AFP

